

Ikasleentzako materiala. Kopia bat talde bakoitzarentzat.

Banatu Mariaren kasua talde bakoitzari paperean.

MARIA

Maria 12 urteko neska da. Joan den urtera arte oso pozik zegoen bere lagun-koadrilan. Haien artean, Lola bereziki miresten zuen, mutilen aurrean ausarta zelako, baina oso ondo moldatzen zen ere Julene, Karmele eta Rakelekin. Oso talde ona osatzen zuten. Lagun minak ziren.

Sekretu asko partekatzen zituzten, interneteko pasahitzak barne. Horrela haietariko edonor besteen kontuetan sartu ahal zen, mutilek bidaltzen zizkieten mezuak ikusi ahal izateko ...

Eskubaloi taldean laurak zeuden, arratsaldez elkarrekin ibiltzen ziren ikastetxetik irtetean, gelan ere elkarrekin egoteko ahaleginak egiten zituzten, eskolako lanetan laguntza ematen zioten elkarri ... Ikastetxeko saltsa guztietan sartuta zeuden. Agian horrexegatik deitzen zioten “las popus”. Maria oso zoriontsua zen bere lagunekin.

Baina dena hasi zen aldatzen Mariak lagunei esan zienean ez zitzaiola gustatzen egunero Alexen koadrilaren atzean ibiltzea, edota beraiekin une guztietan gelditzea ... Taldean hori komentatu zuenetik, lagunek – eta bereziki Lolak- “estrecha” deitzen hasi ziren, eta handik egun batzuetara, kalera ateratzeko deitzaari utzi zioten.

Gauzak gehiago okertu ziren Lolak WhatsApp talde berri bat egin zuenean: “Las popu-sexis” izenekoa. Maria barruan zegoen. Izena ez zitzaion gustatu; ez zen gustura sentitzen izen horrekin. Gainera bere amak mugikorra kontrolatzen zion. Lolari esan zion taldetik irtengo zela eta horrela egin zuen.

Lagunak gehiago haserretu ziren berarekin: berataz txarto esaka hasi ziren, ez zioten hitzik egiten, patioan ez ziren berarengana hurbiltzen, gelan ez zuten berarekin egon nahi eta bakarrik uzten saiatzen ziren ...

WhatsApp-ak jasotzen hasi zen: “lesbiana”, “bollera”, “estrecha” eta abar deitzen zioten ... Ikaskideen mugikorretan bere argazki manipulatu bat dantzan zebilela jakin zuen, Ikastetxeko pasilloetatik ibiltzean, bera inguratzean, besteak isiltzen ziren; bere atzetik zurrumuruak entzuten zituen; Alex eta bere lagunak “lesbiana” esaten zioten ...